



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Bilboko Udalaren Gobernu Batzordeak 2024ko urtarrilaren 17an hartutako erabakiaren laburpena. Horren bidez, Bilbao Balioen Hiria Seigarren sarien deialdia egin zen 2024koa. BDNS (Identif.): 739884.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/739884>).

Lehenengoa. — Onuradunak

Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erakundeek Erregistroan izena eman duten irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateak, Bilboko ikastetxeak, unibertsitateak eta Bilbon kokatutako enpresak, saltokiak, ostalaritzak, lanbide elkargoak edo antzeko entitateak.

Bigarrena. — Xedea

Saritzea eta jendaurrean aitortzea ekimen hauek gauzatu dituzten edo gauzatzen ari diren eragileen lana: alegia, Bilbon Balioen Agirian jasotako balioak gauzatu dituzten edo gauzatzen ari diren eragileen lana.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Deialdian jasota daude.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Saria izango da 3.300 euroko diru-zenbatekoa ematea entitate irabazleei, Bilbo Balioen Hiria proiektuarekiko eta Bilboko Balioen Agiriarekin daukaten konpromisoagatik ezagutza agertzeko jendaurreko ekitaldi batean.

Bosgarrena. — Aurkezteko epea eta tokia

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 29ra artekoa da. Eskakerak Udaleko Erregistro Orokorraren bidez aurkeztu beharko dira, bai udalaren webgunearen bidez, bai barrutietako udaltegietako bulegoetan aurrez aurre, Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailari zuzenduta.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Proiektu guztiek izan behar dute zerikusia Bilboko Balioen Agiriak jasotzen dituen 17 balioetakoren bat edo batzuk garatzearekin, eta egon behar dute dagoeneko gauzaturik edo ezartzeko prozesuan aurreraturik. Aurkezten diren erakundeek Baloreen Gutunari atxikita egon beharko dute partaidetza aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Bilbon, 2024ko urtarrilaren 17an. — Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Saileko Zinegotzi Ordezkaria, Eider Inunciaga Serna